



## **JON BILBAO KATEDRARAKO NEVADAKO UNIBERTSITATEAN, RENON IKERKETA EGONALDIRAKO IRAKASLE GONBIDATUA AUKERATZEKO DEIALDIA**

Etxepare Euskal Institutuak (aurrerantzean Etxepare) eta Nevada System of Higher Education-ek (aurrerantzean NSHE), University of Nevada, Renoren izenean, lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, University of Nevada, Reno-n euskal diasporari buruzko ikerketa elkarrekin sustatzeko, izan nahi dituzten erakunde arteko harremanen esparruan eta euskal ikasketen esparruan ikerketarako lankidetzan jarduteko xedearekin. Aipatu hitzarmenaren testuinguruan, Etxeparek eta NSHEk "Jon Bilbao ikertzaile gonbidatua 2024" izeneko deialdi hau argitaratu dute. Deialdia Etxepare Euskal Institutuko webgunean eta Reno Nevada Unibertsitateko Liburutegiko webguneetan zabalduko da, baita H-Announce eremu akademikoko iragarki plataforman eta Society of American Archivistsen webgunean. 2024ko edizioa, Nestor Basterretxearen mendeurrena izanik, bere bizitza eta lanean zentratuko da. Lehenetsiko dira Basterretxea eta diaspora aztertuko duten lanak, baina onartuko dira baita Basterretxea orokorrean aztertzen duten beste lan edota Basterretxeaz ez ezik, diasporarekin harremana (izan) duten beste artista batzuren inguruko proiektuak.

### **1. XEDEA**

Deialdi honen xedea da 2024 urteko ekitalditako Jon Bilbao Katedrarako ikertzaile gonbidatua hautatzea, Euskal Diaspora gaiari buruzko ikerketa proiektua garatzea, Nestor Basterretxearen bizitza eta lana abiapuntu, eta University of Nevada, Renon, hilabeteko ikerketa egonaldia egitea.

### **2. IKERKETA EGONALDIAREN DESKRIBAPENA**

Egonaldia 2024ko abuztuaren 21etik azaroaren 30era arte bitartean izango da.

- Programaren ezaugarriak hauek dira:
- Deialdian aurkeztutako ikerketa proiektua gauzatzea
- Euskal Diasporaren eta aurten zehazki Nestor Basterretxearen ikerketarako espazioak garatzea, lankidetzarako aukera berriak identifikatu eta ideia berriak garatzeko, baita amerikar ikergune eta ikertaldeetan euskal diasporari, eta Basterretxeari buruzko ikerketa txertatzeko.
- Amerikar akademian Euskal Diaspora eta Basterretxeari buruzko ikerketa sarea osatu eta indartzeko pausuak ematea.
- Jardunaldi hitzaldi eta ekintzak antolatzea Estatu Batuetako akademia eta gizartean euskal diasporari buruzko ezagutza zabaldu ahal izateko.
- University of Nevada Renoko Center for Basque Studies (CBS) eta Jon Bilbao Liburutegiako (JBL) arduradunekin partekatutako komunikazio estrategia garatzea proiektuaren ikusgaitasuna eta sortutako ezagutzaren zabalkundea indartzeko.
- Alde guztien artean adostutako beste edozein ekintza Euskal Diasporaren eta Basterretxearen ikerketa eta bere zabalkundea indartzera bideratua dagoena.

### **3. EGONALDIAREN XEDEA**

Euskal Diasporaren eta Nestor Basterretxearen ikerketarako espazioak garatu eta Amerikar akademian Euskal Diaspora eta Basterretxeari buruzko ikerketa sarea osatu eta indartzeko xede orokorra izanik, 2024ko egonaldian hitzaldi eta ekintzak antolatzea



Estatu Batuetako akademia eta gizartean euskal diasporari buruzko ezagutza zabaldu ahal izateko.

University of Nevada Renoko Center for Basque Studies (CBS) eta Jon Bilbao Liburutegiako (JBL) arduradunekin partekatutako komunikazio estrategia garatzea proiektuaren ikusgaitasuna eta sortutako ezagutzaren zabalkundea indartzeko.



#### 4. ESKABIDEAK AURKEZTEA

**4.1. Eskatutako agiriak:** eskaerei honako dokumentuak gehitu beharko zaizkie: - Curriculum Vitae -NAN edo pasaportearen fotokopia -Doktore tituluaren fotokopia -egungo lan kontratua -proposatutako ikerketa eta transferentzia ekintzen proiektua (gehienez 4 orrialde, Times New Roman 12, 1,5 lerroarteko espazioan).

**4.2. Aurkezteko epea:** eskabideak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 25ean amaituko da. Ez dira aintzat hartuko data horretarako dokumentazio guztia behar bezala aurkeztuta ez duten eskabideak.

**4.3. Aurkezteko modua:** Eskabidea (l. eranskina) eta dokumentazioa ondorengo helbide elektronikora eta ondorengo helbide postalera bidaliko da:

Jon Bilbao Euskal Liburutegia  
1664 N Virginia St  
University of Nevada, Reno / MS 0322  
Reno, Nevada 89557

**Eta gainera** posta elektronikoz: [arrieta@unr.edu](mailto:arrieta@unr.edu)

Eskabidea [Etxepare Euskal Institutuko Webgunean](#) eta [Reno Nevada Unibertsitateko Liburutegiko webgunean](#) egongo da eskuragarri, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez.

#### 5. HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

-doktore titulua izatea -unibertsitate mailako irakasle edota ikertzaile izatea -Euskal Diasporan ikertzaile eskarmentua izatea -Azken 4 urteetan Jon Bilbao katedrako ikerketa egonaldirako laguntzarik ez jaso izana. -Ingelesez ondo moldatzea (gutxienez B1 maila frogatu beharko da).

#### 6. BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA BESTELAKO BALIABIDEAK

Hautatutako ikertzaileak 5.000 euro arteko laguntza jasoko du Etxepare Euskal Institutuagandik, egonaldirako bidaia (Europa eta Ipar Amerika artean, Estatu Batuak eta Kanada barne direla), ostatua eta University of Nevada Renon ikerketa egonaldi bitartean eginiko mantenu gastuak ordaintzeko, baita ere urteko foro zientifikoa (udako ikastaroa, mintegia, hitzaldia edo lantegia) antolatzearekin zerikusia duten gastuak ordaintzeko, edo bestela, ikertzaile gonbidatuak nazioarteko foro akademiko batean parte hartzeak eragindako gastuak ordaintzeko. Center for Basque Studies-ek ikertzaileiaren bisaren kostua ordainduko du, 800 dolar arte, eta baita aseguruaren kostua ere, 1.000 dolar arte. Gainera ikertzaileari lanerako prestatutako bulegoa eskainiko dio eta asteko hogeitau ordu arteko ikerketa-laguntza ere bai, ikasturtean zehar, laguntzaile graduatu baten bidez. CBSk proiektuari eskainitako web-orria sortuko du bere webgunearen baitan, eta hori mantentzeko lanak egingo ditu. Jon Bilbao Euskal Liburutegiak bere bildumara sarbidea emango dio ikertzaileari, Euskal diasporaren gaineko Estatu Batuetako beste bildumen gaineko informazioa, bai eta ikerketari lotutako dokumentazioa antolatzeko laguntza ere.



Jon Bilbao Euskal Liburutegia hautatuko ikerketa proiektuaren baitan jasotako materialen (grabaketen, galdetegiak, etab.) errepositorio izango da, bai eta emaitzen zabalkunderako plataforma (nagusia) ere.

## 7. HAUTAPEN-BATZORDEA

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko Hautapen-batzorde bat eratuko da. Honako hauek izango dira bertako kide: Lehendakaria: Monika Madinabeitia Medrano, EEIko Euskara Sustatu eta Hedatzeko Zuzendaria.

Batzordekideak:

-Xabier Irujo, CBSko zuzendaria.

-Iñaki Arrieta Baro, Jon Bilbao Euskal Liburutegiko zuzendaria

Idazkaria: Eneko Agirre Maiora, EEIko Euskara eta Kultura teknikaria, edo bere ordezkoa, hitz egiteko eskubidearekin, baina botorik gabe.

## 8. HAUTAPEN-IRIZPIDEAK

Hautagaien aukeraketa honako baremoaren arabera egingo da eta, guztira, 100 puntu lortu ahal izango dira gehienez ere: CV: 40 puntu Curriculumean ondorengoak hartuko dira kontuan: aurrera eramango diren ekintzei lotutako ibilbide akademikoa, azken hamar urteetako nazioarteko proiektuetan eskarmentua, nazioartean ikerketa egonaldietan eskarmentua eta elkarlanean ikerketa egiten eskarmentua Aurkeztutako ikerketa proiektua: 60 puntu. Proiektuan ondorengoak balioetsiko dira: proiektuaren egokitasuna proposatutako gaiari dagokionez, kalitatea eta interesa (euskal ikasketen aurrerapausoetarako eta Nevada, Renoko Unibertsitatean garatzen diren euskal ikerketa lerroetarako), bideragarritasuna, genero ikuspegiaren txertaketa, alde berritzaileak.

Ikerketa proiektuaren atalean, Nestor Basterretxea eta diaspora gaiak lantzen dituzten proiektuei 5 puntu gehiago emango zaizkie.

## 9. HAUTAGAIEN AUKERAKETA

Baldintzak betetzen dituzten aurkeztutako eskabide guztiak aipatutako hautapen irizpideak aplikatuz erkatuko dira. Proiektuak hurrenkera batean jarriko dira, baloraziorik altuenak lortzen dituzten eskabideetatik hasita. Hautapen Batzordeak hautagai bat proposatuko du.

Deialdi honetan eskainitako plaza esleitu gabe gelditu ahalko da honako kasuetan: - Hautagaiek puntuazio orokorrean 50 puntu baino gutxiago lortzen badituzte. -Deialdi hau argitaratu ondoren, edozein arrazoi medio, University of Nevada, Reno, eta EEIren arteko lankidetzaren hitzarmena gauzatzen ez bada edo bertan behera gelditzen bada.

## 10. JAKINARAZTEA

University of Nevada, Reno eta Etxepare Euskal Institutuaren webguneen bitartez emango da hautatutako pertsonen eta plazarik gabe geratutako hautagaien berri. Azken hauek errezerban egongo dira, hautatuek ukoa aurkeztu edo ordezkatu beharra gertatuta ere.



Web-orrian zerrenda horren berri eman eta berehala, Etxepare Euskal Institutua harremanetan jarriko da aukeratutako pertsonekin, egin beharreko izapideak ahalik eta azkarren egiteko.

## 11. UKOAK ETA ORDEZKAPENAK

Hautatutakoak University of Nevada, Renora joan aurretik egonaldiari uko egiten badio, University of Nevada, Reno eta EEIk ordezkoen zerrendatik hautagai berria proposatuko dute, ordezkoen zerrendaren hurrenkeran.

## 12. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

**12.1.** Egonaldietan parte hartzea onartzea: erabakia jakinarazi eta hamar eguneko epean, hautatuek idatziz onartu beharko dute egonaldian parte hartu eta egonaldiaren baldintzak betetzea. Hala egiten ez badute uko egiten dutela ondorioztatuko da.

**12.2.** 2024ko abuztuaren 21etik azaroaren 30 artean, University of Nevada, Renon hilabeteko egonaldia egitea.

**12.3** Emandako ordainsaria onartutako proiektuaren garapenerako erabiltzea eta gastuen justifikazioa aurkeztea.

**12.4.** Aukeraturiko ikertzaileak konpromisoa hartzen du bere lanaren prozesua, emaitza, edo honen zati bat, ikastaro, hitzaldi edo antzeko topaketa baten bidez partekatzea, eta Etxepare Euskal Institutuarekin adosturiko formatuan. Era berean, garatutako proiektuaren balorazio-memoria bat aurkeztu beharko dute.

**12.5.** University of Nevada, Reno eta EEIk ikertzaileak plazaratzen dituen ikerketa lanak beren plataformen bidez zabaltzeko eskubidea izango dute baldin eta erabilera komertzialik ez bada.

**12.6.** Ikerketa egonaldi honen ondorioz sortutako ikerketa lanen egile eskubideak ikertzailearen esku geratuko dira, baina haiek hedatzean beren-beregi adierazi beharko da lanaren jatorria University of Nevada, Reno eta EEIk bultzatutako egonaldia dela.

## 13. ORDAINKETA

Egonaldian parte hartuko duen ikertzaileari honela egingo dizkio ordainketak Etxepare Euskal Institutuak:

-%50 hautapena onartu eta gehienez 15 eguneko epean.

-%50 jarduera amaitu eta deialdi honetako 12. puntuan aipatzen diren baldintzak beteta, beranduenik ere 2024ko abenduaren 31n.

Zenbateko honi kendu egingo zaizkio, hala dagokionean, indarrean dagoen zerga araudiaren baitan dagozkion atxikipen eta konturako ordainketak.

Kasua bada, jarduera hasteagatik aplikagarria den atxikipena, onuradunak eskatu beharko du. Eskaera hori egonaldia onartzeko unean aurkeztu beharko da.

## 14. EZ BETETZEAK

Deialdi honetako 12. puntuan ezarritako betebeharrak beteko ez balira, ez betetzea gertatu dela ulertuko da eta aukeratutako pertsonak itzuli egin beharko dizkio EEIri jasotako diru-kopuruak gehi horiei legez dagozkien interesak.

## 15. DATUEN BABESA



Datuen babesari buruzko araudiari jarraituz, deialdi honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak “Euskal Hizkuntza eta Kultura irakurleak eta Katedretako Irakasle Gonbidatuak” izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira, eta deialdi honen xedeetarako erabiliko dira soilik. Honen arduraduna Etxepare Euskal Institutua izango da. Legezko betebeharririk izan ezean, eta proposatutako hautagaien kasuan, dagokien unibertsitateetara bidaltzearen kalterik gabe, ez zaizkio hirugarren bati lagako.

Interesdunak ondoko eskubideak ditu: datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, datuen eramangarritasunerako, tratamendua mugatzeko eta kontra egiteko, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko ere. Interesdunak eskubide hauek egikaritu ditzake, eskabidea ondoko helbidera zuzenduz: Etxepare Euskal Institutua, Andre Zigarrogileen plaza, 1, Tabakalera eraikina, 20012 Donostia, edo Datuen babes ordezkariari, hurrengo helbidean: [dpd-dbo@euskadi.eus](mailto:dpd-dbo@euskadi.eus)